

## ITZULPENA<sup>1</sup>

---

Araua : EUROPAKO PARLAMENTUAREN ETA KONTSEILUAREN GOMENDIOA, 2006ko abenduaren 18koa, Europako Erkidegoko herrialdeen artean hezkuntza eta prestakuntzarako izan beharreko mugikortasunari buruzkoa: Mugikortasunaren Kalitaterako Europako Gutuna. (2006/961/EE).

---

Ondorengo itzulpena Eusko Jaurlaritzak egin du Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko (IVAP) Itzultzaile Zerbitzu Ofizialaren bidez eta Zerbitzu honen ziurtagiriarekin.

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta honek ez du inolako balio juridikorik.

---

<sup>1</sup> Jatorrizko testua, EBren Egunkari Ofizialan argitaratua, hauxe da: *Recomendación 2006/961/CE del Parlamento Europeo y del Consejo, de 18 de diciembre de 2006, relativa a la movilidad transnacional en la Comunidad a efectos de educación y formación: Carta Europea de Calidad para la Movilidad (Diario Oficial de la Unión Europea, L 394 de 30/12/2006, pg. 5)*

# *Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik*

II

EUROPAKO PARLAMENTUA ETA KONTSEILUA

EUROPAKO PARLAMENTUAREN ETA KONTSEILUAREN GOMENDIOA

2006ko abenduaren 18koa

Europako Erkidegoko herrialdeen artean hezkuntza eta prestakuntzarako izan beharreko mugikortasunari buruzkoa:  
Mugikortasunaren Kalitaterako Europako Gutuna

(2006/961/EE)

(Testu egokia Europako Esparru Ekonomikoaren gaineko akordioaren ondorioetarako)

EUROPAKO PARLAMENTUAK ETA EUROPAR BATASUNeko KONTSEILUAK

Europako Erkidegoa Eratzeko Tratatuak, eta, bereziki, haren 149. artikuluko 4. paragrafoa, eta haren 150. artikuluko 4. paragrafoa aztertu dute,

Batzordearen proposamena aztertu dute,

Europako Ekonomia eta Gizarte Komitearen irizpena aztertu dute <sup>(1)</sup>,

Eskualdeen Komitearen irizpena aztertu dute <sup>(2)</sup>,

Tratatuaren 251. artikuluan araututako prozedurari jarraiki <sup>(3)</sup>,

Eta hauek kontuan hartuta:

(1) Hezteko eta prestakuntza jasotzeko mugitzea da pertsonen zirkulazio-askatasunaren alderdietako bat, eta ez da ahaztu behar zirkulazio-askatasuna Europako Erkidegoa Eratzeko Tratatuak babesten duen funtsezko askatasunetako bat dela. Horrenbestez, hezkuntza eta prestakuntzaren esparruan, Europar Batasunaren ekintzaren helburu nagusietako bat da mugikortasuna erraztea; baina, betiere, balio komunak eta aniztasunaren errespetua aintzat hartuta..

Mugikortasuna funtsezko tresna da ikaskuntza iraunkorraren esparruan benetako europar esparrua sortzeko, lanpostuak sustatu eta pobrezia gutxitzeko, eta europar herritartasun bizia garatzen laguntzeko.

(2) Mugikortasunak, herritarrak elkarrengana hurbiltzeaz gain, pertsonak elkar ulertzea errazten du. Mugikortasuna elkartasunerako, ideiak trukatzeko eta Europa osatzen duten kultura ezberdinak hobeto ezagutzeko bidea da, eta beraz, kohesio ekonomikoa, soziala eta erregionala sustatzen ditu.

(3) Lisboako helburuetako bat da Europa jakintzan oinarritutako ekonomia izatea 2010. urtea baino lehen, harik eta munduko ekonomia berritzaileena eta lehiakorrena izatea lortu arte. Helburu hori lortzeko bidean, ezinbestekoa izango da Europako mugikortasuna sustatzea, hezkuntza nahiz prestakuntzarako trukeak egitea eta 2006 Langileen Mugikortasunerako Europar Urtea bezalako ekintzak arrakastatsuak izatea.

(4) Hezkuntzarako eta prestakuntzarako mugikortasun-esparrua hobetzen bada Europar Batasunean, jakintzan oinarritutako ekonomia lortzeko bidea jorratuko da, eta jakina da hori egitea funtsezkoa dela estatu kideetan enplegua sortzeko, garapen iraunkorra bultzatzeko eta ikerketa eta berrikuntza indartzeko.

(5) Interesatu guztiek, eta, horien artean, erakunde publikoek, laguntza handiagoa eman behar diote Europar Batasuneko barne-mugikortasunari, hori baita bidea Europako hezkuntza eta prestakuntza-sistemen kalitatea eta eraginkortasuna handitzeko.

(6) Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2001/613/EE Gomendioa, 2001eko uztailaren 10ekoa, ikasleen, prestatzen ari diren pertsonen, boluntarioan, irakasleen eta prestatzaileen mugikortasunari buruzkoa <sup>(4)</sup> izan zen erkidego horren mugikortasuna errazteko eman zen lehen Gomendioa.

(7) Aipatutako Gomendioko III. paragrafoko a) idatz-zatian xedatutakoari jarraiki, Batzordeak aditu-talde bat izendatu zuen. Talde horren lehen jarraipen-txostenak bistarazi egiten ditu zer aurrerapen egin diren herrialdeetan eta Europa osoan, hezkuntzarako eta prestakuntzarako mugikortasun-esparru bat sortzeko, baina, horrez gain, txostenak nabarmentzen du mugikortasuna kuantitatiboki handitzeaz gain, mugikortasunaren kalitatea handitu behar dela, batik bat.

---

<sup>1</sup> EO C 88, 2006.4.11koa, 20. or.

<sup>2</sup> EO C 206, 2006.8.29koa, 40. or.

<sup>3</sup> Europako Parlamentuaren Irizpena, 2006eko irailaren 26koa (oraindik EBren Egunkari Ofizialan argitaratu gabea) eta Kontseiluaren Erabakia, 2006ko abenduaren 18koa.

<sup>4</sup> EO L 215, 2001.8.9koa, 30. or.

## *Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik*

(8) Helburu hori lortzeko, besteak beste, Mugikortasunerako Kalitate Gutuna aplikatu daiteke, Gomendio eran, mugikortasunaren esparruan printzipio-multzo bat ezarri eta printzipio horiek borondatez aplikatu daitezten.

(9) Mugikortasunaren Kalitaterako Europako Gutunak (aurrerantzean, "Gutuna") aintzat hartu behar ditu, halaber, ezintasunak dituzten pertsonen eta gizarte-egoera ahulean dauden giza taldeen premia bereziak.

(10) Gutunak laguntza eman behar du pertsonen harreman-trukea handitzeko, eta hezkuntza edo prestakuntzarako aldiak eta titulazioak nahiz kualifikazioak aintzatesteko; horrez gain, elkarren arteko konfiantza ezarri behar du, erakunde eskudunen, entitateen eta mugikortasunean interesa duten alderdi guztien arteko lankidetzara hobetu eta susta dadin.

Arreta berezia eman behar zaio maileguen, beken, eta gizarte-segurantzako prestazioen transferigarritasunaren gaiari.

(11) Gutun honek Erasmus Ikaslearen Gutunean zehaztutako xedapenen osagarri izan nahi du, baina ez du haiek ordeztzeko asmorik.

(12) Agintariek hartzaileen hizkuntzara itzuli behar dute Gutun hau, eta eskuragarri jarri behar dute ikasleentzat, prestakuntza jasotzen ari diren pertsonentzat, organizazioentzat eta jatorriko nahiz harrerako herrialdeetako mugikortasuna sustatzeko interesa duen alderdi ororentzat; hala, oinarritzko eta erreferentziatzko agiri baten moduan erabili behar dute.

(13) Mugikortasunaren abantailak, hein handi batean, xedapen praktikoen kalitatearen arabera izango dira; hau da, informazioaren, prestakuntzaren, laguntzaren eta esperientziaren aintzatespenaren arabera, eta hezkuntza eta prestakuntzarako denboraldi horietan partaideek lortutako prestakuntzaren arabera. Bertan parte hartzen duten pertsona eta erakundeek, mugikortasuna modu egokian antolatuta eta haren ebaluazio egokia eginez gero, nabarmen handi dezakete mugikortasunaren balioa. 09-0861

(14) Europass <sup>(1)</sup> oso tresna erabilgarria da gardentasuna eta aintzatespena sortu, eta, era horretan, mugikortasuna sustatzeko.

(15) Komeni da gutun honetan zehaztutako printzipioa mugikortasun-denboraldian aplikatzeaz gain, aurreko eta ondoko denboraldietan ere aplikatzea.

(16) Aldez aurretik, ikaskuntza-plan bat osatu behar da. Horrez gain, partaideak prestatzea komeni da; betiere, prestakuntza linguistikoa kontuan hartuta. Testuinguru horretan, agintari eta erakunde eskudunek laguntza eman behar dute.

(17) Partaideak bere herrialdeetara irten baino lehen zehaztu behar dira administrazio- eta finantza-gai guztiak; esaterako, zenbat diru emango den laguntza gisa, nork ordainduko dituen gastuak, eta nork ordainduko dituen harrera-herrialdeko aseguruaren kostuak.

(18) Atzerrian igaro beharreko denboraldian eragiteko, partaideentzako tutoretza-mekanismoak aurreikusiz hobetu daitezke mugikortasunaren kalitatea.

(19) Harrera-herrialdean egindako ikastaro, eskola eta prestakuntza guztiak argi eta garbi deskribatu behar dira, ikastaro bakoitzaren iraupena zenbatekoa den zehaztuz. Horrek guztiak, partaideak bere herrialdera itzultzean, egindako lana aintzatesten lagundu behar du.

(20) Gardentasuna eta kudeaketa ona edukitzeko, ongi zehaztu behar dira zein izango diren mugikortasun-programaren fase eta ekintza bakoitzeko interesdun arduradunak.

(21) Mugikortasunaren kalitate orokorra bermatzeko, Europar Batasuneko herritar guztien zirkulazio librea bermatu behar da, eta, ahal den heinean, Gutun honetan eta mugikortasunari buruzko gomendioetan zehaztutako printzipioak aplikatu: hezkuntza edo prestakuntza; ikaskuntza formala edo ez formala, boluntario-lanak eta -proiektuak barne; mugikortasun-aldi laburrak edo luzeak; eskola-ikaskuntza, goi-ikasketak, enpleguarekin lotutakoak eta bizitza osoko ikaskuntzarekin lotutako neurriak.

(22) Mugikortasunarekin zerikusia duten jarduerak askotarikoak eta iraupen anitzekoak izan daitezkeenez, estatu kideek Gutunaren aplikazioa beren inguruabarretara egokitu dezakete; hau da, egoera eta programa zehatzetara egokitu ditzakete. Arauaren alderdi batzuk derrigorrezkoak izatea eta beste batzuk hautazkoak izatea erabaki dezakete estatu kideek.

(23) Kontuan hartuta estatu kideek ezin dituztela behar bezala bete Gomendio honetako helburuak, eta, Gomendio honen dimentsioari eta ondorioei erreparatuta, Europa osoko erakunde bidez hobeto lor daitezkeela, Europako Erkidegoak xede horretako neurriak har ditzake, Tratatu 5. artikuluko subsidiarotasun-printzipioari jarraiki.

Artikulu horretan xedatutako proportzionaltasun-printzipioari jarraiki, helburu horiek lortzeko behar dena xedatzera mugatzen da Gomendio hau.

### ESTATU KIDEEI GOMENDATZEN DIETE:

1. Gutun hau onartzeko eta sustatzeko, garapen pertsonala eta profesionala indartzeko bitarteko gisa;
2. Gomendio honen aplikazioari eta mugikortasunaren alde har ditzaketen bestelako neurri osagarriei buruzko informazioa emateko.

---

<sup>1</sup> 2241/2004/EE Erabakia, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, 2004ko abenduaren 15ekoa, Europar Batasunean arau-esparru bakarra finkatzen duena, kualifikazioen eta eskumenen gardentasunerako (Europass) (EO L 390, 2004.12.31koa, 6. or.).

*Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik*

Bereziki, mugikortasunaren kalitateari erreparatuko diete, Heziketa eta Prestakuntzarako 2010 lan-programetan herrialdeek egin dituzten ekarpenak balioetsiz, Gomendio hau onartu ondorengo bigarren urtetik aurrera.

3. Estatu kideek lankidetzat estuan jarrai dezatela eta beren ekintzak koordinatu ditzatela, Europar Batasuneko herritarren mugikortasuna zuzenean edo zeharka oztopatzen dituzten trabak desagerrarazteko;

4. Hezteko eta prestatzeko egin behar diren mugimenduak laguntzea eta horiek egiteko azpiegitura egokiak prestatzea; betiere, herritarren hezkuntza- eta prestakuntza-mailak hobetzeko;

5. Mugikortasuna sustatzeko beharrezko neurriak hartzea, eta horri buruzko informazio guztia ongi ulertzen dela eta erraz eskura daitekeela bermatzea; esaterako, mugikortasunari buruzko sarrera-gida sartu edo mugikortasunean lagun dezaketen erakundeen zerrenda bat egin daiteke, mugikortasunaren baldintzak hobetzeko.

**BATZORDEARI GOMENDATZEN DIOTE JARDUERA HAUEK EGIN DITZAN:**

1. Estatu kideetako agentziek eta hezkuntzaren nahiz prestakuntzaren alorrean jarduten duten erakundeek Gutuna erabil dezaten sustatzea;

2. Estatu kideekin eta gizarte-eragileekin batera lanean jarraitzea, Gomendio honetan bultzatutako neurriei buruzko informazio eta esperientzia erabilgarriak trukatzeko;

3. Dagokion erakundeekin batera lan eginez, heziketarako eta prestakuntzarako mugikortasunari buruzko estatistika-datuen bildumak lantzea edo hobetzea, datuak generoaren arabera bereiziz;

4. Gomendio hau 2001/613/EE Gomendioak osatutako multzoaren ataltzat jotzea, eta, beraz, Heziketa eta Prestakuntzarako 2010 lan-programako txosten orokorrek eskatutako biurteko txostenak aurkeztea.

Bruselan emana, 2006ko abenduaren 18an.

*Europako Parlamentuaren izenean*

*Lehendakaria*

J. BORRELL FONTELLES

*Kontseiluaren izenean*

*Lehendakaria*

J.-E. ENESTAM